

1981 GO. EKAINAREN 21 AN, BERAKO ERRIAK
JULIO CARO BAROJARI ESKAINI ZION OMENALDIAN
ESAN NITUAN ITZAK

Juan Garmendia Larrañaga

Jaun - andreok, egun on denori.

Gorazarre batek biltzen gaitu gaur Berako Udaletxe onen aretoan.

“Zu zera Bera, edertasuna bera”, abestu zigun erri ontako olerkaria izan zan Joakin Aldabek, bere lan batean.

Auzo eta kaleak osatzen dute Bera, etxe polit eta ederrekin apainduta arkitzen dan uria.

Ar-etxe eder auetako batean, “Itzea” izenekoan, Caro Barojatarrek dute beren bizi lekua, osaba Pio Barojaren urteetatik.

Ate astuna edo pixua, “Itzeako” atea; baiñan era berean bai xamurra eta iriki-errexka “Itzea”-ko ate au. Bere barne zabalean bizi-bizirik irauten du Pío —don Pío— Barojaren oroipenak, bere illoben ekintza onaren esker.

Pío Caro Baroja eta bere emazte Josefina, beren seme-alabekin. Bertan, leku berean, orma lodi aien barnean, Julio ikerlaria eta kondairagille ospetsua, langiroan, baiña beti leialki, agurtzera edo zerbait jakin naiean urbiltzen diren denekin mintzatzeko prest.

Orrela igarotzen dire egunak eta urteak “Itzea” izena daraman etxe atoskor ontan; jendearen sartu-atera etengabekoekin.

Batzuek ikusmiran, beste batzuek jakintzale, baiñan denak adiskide.

Gaur, Julio Caro Barojaren inguruan bildu dira bere lagunak, Berako erria, kanpotar adiskide batzuen ondoan.

Berako erriak, Julioren biotzeko erriak, maitasuna adierazi dio, bereztasunez, naturalki.

Julio Caro Baroja, gutxi bezelako gizon jantzia, gutxi bezelako gizon apala.

Edesti-zaingo Akademikoa, edo Académico de la Historia, denok dakigu Euskalerriko jakintza elkarte garrantzitsu guztietakoa dela, baita beste kanpoko batzuetakoa ere.

Juliok argitaratutako lanak ezin dira laburki aipatu. Saski edo otarra txiki baten ezin baidira gauza asko sartu. Iru laurdeneko ontzi batek ez baidu litro batentzat lekurik ematen.

Caro Barojaren omenez, “Centro de Investigaciones Sociológicas” izena daraman iraskundeak argitaratu zun liburuan, Madriden, 1978 garren urtean, bere 354 lanen izen buruak azaltzen dira. Au, esan dedanez, 1978 garren urtetaraiño.

Dakigunez, jakintza edo kultura maillan sail ezberdiñak sakon landu ditu Julio Caro Barojak: kondaira, etnologia, antropologia, izkuntza etabar. Margolaritza edo pintura aaztu gabe, emen bere osaba Rikardo gogoratuaz.

Julioren lan-idatzi batzuek Euskalerriko gaietatik at, kanpora irikiaz, izan dira; adibidez “Los moriscos del Reino de Granada”, “Estudios saharianos” —1955 garren urtean—, etabar.

Beste lan batzuek badute gutxi edo geiago Euskalerriarekin zer ikusia, baiña ez dira mugatzen gure gauzetara bakarrik; emen aipatuko ditut “Los judíos en la España Moderna y Contemporánea” —iru zatitan—, “El Carnaval”, “Los pueblos del Norte de la Península Ibérica”, 1943 garren urtean aurreneko aldiz argitaratua, eta “Las brujas y su mundo”. Liburu ontan Juliok gogoratzen digu bere aitona, Serafín Barojaren olerki baten izena, “Larunbata akelarren”, ain zuzen.

Julio Caro Barojaren beste ekintza batzuek gure Erria izan dute elburua. Bear bada, ikasleak irakaslea epaitzea ez da oso egokia izango noski, baiñan esango det, kezkarik gabe, lan garrantzitsuak direla benetan.

Gizona bere munduaren barnean ikusiaz. Bere sinismen eta oitura barnean; pozezko eta eriotzaren inguruko ospakizunetan; bearrean edo ogi-bidean —artzai / nekazari, arrantzale eta mota askotako lantegietan—, bai atzokoari eta berdin ere eranegunari begiratuaz aztertu ditu Caro Baroja irakasleak.

Gogoratu ditzagun lan auetako bakar batzuek:

“Los vascos”, 1949 ezkerro askotan argitaratua.

“Vasconiana”, 1957 garrenean aurreneko argitaraldia duna.

“Los vascos y la historia a través de Garibay”, 1972 garrenean.

“Estudios Vascos”, 1973 garrengo urtean.

“Introducción a la historia social y económica del Pueblo Vasco”, 1974 garrenean.

Bere sendia edo familiatzaz idatzia digu “Los Baroja” izena daraman liburua, 1972 garrengo urtean.

Euskeraz ari naiz eta emen aipatuko ditut, bereziki, beste lan batzuen artean: “Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la

latina”, 1946 garren urtean, eta “Observaciones sobre el vascuence y el Fuero General de Navarra”, 1969 garrenean. Esango det Julio Caro Baroja, Euskaltzaindikoa dala, Oorezko euskaltzaiña.

Beran arkitzen gera, eta naita utzi det azkenerako erri ontaz idatzitako liburua, bere izena “La vida rural en Vera de Bidasoa”, 1944 garren urtean aurreneko argitaratzea ezagutu zuana.

Gure egunetako Berako erria ezta izango noski “La vida rural en Vera de Bidasoa”-n azaltzen dan argazki edo erretrato berdiña. Julio Caro berak ere adierazten du au “Vecindad, familia y técnica” izeneko liburuan.

“Cada vez que iba a una caserío del mismo pueblo con un dibujo o esquema de algo que se usaba en 1934 ó 1935, con la idea de encontrarlo —dio Caro Barojak—, podía enfrentarme con situaciones distintas, pero que, en resumen, eran éstas:

1. El objeto seguía en uso y no había duda respecto a su nombre, empleo, etc.
2. El objeto estaba arrumbado desde hacía poco.
3. El objeto había desaparecido.

Berrogei urtetik berakoentzat aski gauz ezezagunak.

“Zer da ori?” - “Zer izen da?” El hombre de 30 ó 40 años— contemplaba el dibujo de todas las formas posibles, se rascaba la cabeza y me decía —“Ez dakit”. Si llegaba a otro más viejo, como de 60 años, se sonreía y observaba: —“Tresna zarra dago”—. Podía a veces recordar su uso, el nombre, etc. Pero referido al pasado no siempre con claridad matemática”, adierazten digu Julio Caro Barojak.

“Se dio el caso —Juliok jarraitzen du— de que algún ochentón, ante el interrogatorio, tenía más conciencia del uso de ciertos aperos hacia 1910 o en su juventud. Podía, en suma, suministrar detalles más vividos.”

Onelatsu joan dire azken urte auetan gure gauzak, edozein erri eta maillatan.

Aurrerapenaren gauza onak, ezin uka. Ori argi eta garbi dago. Gizonaren izate berak darama aurrerapena.

Baiñan beste aldea edo arpegia ezin aaztu ere. Aldaketa gogorrak, gogorre-giak bear bada, azken urte auen buru.

Egun, an-emenka kezka berdiñak, berdín jantzi eta berdintsu igaro jaialdiak, elizkizun eta atsedaldiak.

Erriek beren nortasuna, beren aberastasun berezia galduaz, berdintasun triste xamar batera eldu dira, nai baiño geiagotan.

Lantegi-uriak, nekazari-erria zapaldu du, onen erri - jakintza eta izatea galdu eta lurperatuaz. Au da gertatu dana, gauzak orrela dira.

Eta orrela dio ere esaera zar batek:

“Leen ala
oraiñ ola
gero, ez dakit nola.”

Gure ondorengo gizona, beste mundu baten barnean ibiliko dala, ez det kezkarik. Baiñan bere jakin naia, gizonak berekin beti eraman dun jakin naia asetzeko, bear-bearrezkoak izango ditu egin diren egiazko ikerketa lanak.

Alde ontatik, Julio Caro Barojaren lanak eta baita ere nere alboan arkitzen dan beste maixu ospetsua dan on Jose Migel Barandiaranenak, beste batzuen artean, argi laguntzaille ederrak izango dira, gizaldien zear. Zeaztasun benetako argi iturriak, denbora igarotzearekin balioa azitzen joango direnak.

Nere itzak amaitzera noa, errelejuak onela adierazten dit, erabakia dugunez.

Bukatzeko, Julio Caro Baroja adiskide maiteari zorion beroenak opa dizkiot, eta era berean, denon naia neretuaz, itzal aundiko gizon onek jarraitu dezala luzaro bere ekintzan, Erria eta onen jakintzaren onerako.

Besterik ez.